| | |
|---|---|
| **ORDEN DE LA CONSEJERA DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRAFICO, POR LA QUE SE ORDENA EL INICIO DEL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL DECRETO QUE REGULA EL PROGRAMA DE JUVENTUD VASCA COOPERANTE.** | **AGINDUA, ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA EGITEKO PROZEDURA HASTEKO AGINTZEN DUENA.** |
| Tras el comienzo de la XIII legislatura, y la entrada en vigor del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se procedió a la reordenación de la estructura departamental de la Administración de la Comunidad Autónoma. | XIII. legegintzaldia hasita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua indarrean sartu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailen egitura berrantolatu berri da. |
| El Decreto 320/2024, de 29 de octubre, establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, y es la Dirección de Juventud la encargada del programa Juventud Vasca Cooperante. | Urriaren 29ko 320/2024 Dekretuak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du, eta Gazteriako zuzendaritza izango da Lankidetza programaren arduraduna. |
| El programa Juventud Vasca Cooperante responde a la necesidad de fomentar el voluntariado juvenil, conforme al artículo 41 de la Ley 2/2022, de 10 de marzo, de Juventud. El objetivo del programa es propiciar que jóvenes de Euskadi participen en proyectos de cooperación y que su experiencia de voluntariado sirva para formar, sensibilizar y propiciar una cultura de solidaridad en nuestra sociedad. | Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa garapenerako hezkuntza sustatzeko beharrari erantzuten dio, 2/2022 Legearen, martxoaren 10ekoaren, Gazteriarenaren 42. artikuluak adierazten duenarekin bat etorriz. Programaren helburua Euskadiko gazteek lankidetzako proiektuetan parte har dezaten da, eta boluntariotzan izandako esperientziak gure gizartean elkartasunean oinarritutako kultura eratzeko, sentsibilizatzeko eta errazteko balio dezan. |
| El procedimiento de elaboración de dicho Decreto habrá de ajustarse a lo establecido en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general (en adelante, Ley 6/2022), y cumplir los trámites e informes considerados necesarios. | Dekretu hori egiteko prozedurak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean (aurrerantzean, 6/2022 Legea) ezarritakoari jarraitu beharko dio, eta beharrezkotzat jotzen diren izapideak eta txostenak bete beharko ditu. |
| El artículo 12.1 de dicha ley indica que el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por | Lege horren 12.1 artikuluak adierazten du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko |



Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T6WCY-44W6
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** NEREA MELGOSA VEGA \| 2025/05/08 10:21:21

| | |
|---|---|
| orden del consejero o consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen. En este caso, la competencia para ordenar el inicio del referido procedimiento viene atribuida a la Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico. | sailburuaren aginduz hasiko dela. Kasu honetan, prozedura hau hasteko agindua emateko eskumena Obngizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailburuarena izango da. |
| Por todo ello, y sobre la base del contenido necesario que debe tener la Orden de Iniciación, conforme al artículo 13.1 de la Ley 6/2022, | Horregatik guztiagatik, eta 6/2022 Legearen 13.1 artikuluaren arabera Prozedura hasteko Aginduak izan behar duen edukietan oinarrituta, honako hau |
| **RESUELVO** | **EBATZI DUT** |
| **PRIMERO. - Objeto de la presente Orden y competencia para ordenar la iniciación del procedimiento.** | **LEHENENGOA.- Agindu honen xedea eta prozedura hasteko agindua emateko eskumena.** |
| El objeto de la presente Orden es el inicio del procedimiento para la elaboración del decreto por el que se regula el programa Juventud Vasca Cooperante. | Agindu honen xedea da Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa arautzen duen Dekretua egiteko prozedurari hasiera ematea. |
| La competencia para ordenar la iniciación de este procedimiento viene atribuida a la Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico, en virtud de lo establecido en el artículo 12.1 de la Ley 6/2022. | Prozedura hau hasteko agindua emateko eskumena Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailburuari dagokio, 6/2022 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. |
| **SEGUNDO. - Objeto y finalidad de la norma a elaborar.** | **BIGARRENA.- Egin beharreko arauaren xedea eta helburua.** |
| El proyecto de Decreto que se va a elaborar tiene por objeto regular el programa Juventud Vasca Cooperante. | Landuko den dekretu-proiektuaren xedea Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa arautzea da. |
| **TERCERO. - Viabilidad jurídica y material de la norma que se elabora.** | **HIRUGARRENA. - Egiten den arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.** |
| El artículo 10.39 del Estatuto de Autonomía del País Vasco dispone que corresponde a la Comunidad Autónoma de Euskadi la competencia exclusiva en materia de política juvenil. Por su parte, el artículo 7, apartado c), número 2 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, reconoce a los Territorios Históricos la competencia de ejecución dentro de su territorio de la legislación de las Instituciones Comunes en aquella materia. | Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.39 artikuluak xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio gazte-politikaren arloko eskumen esklusiboa. Bestalde, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluko c) ataleko 2. zenbakiak lurralde historikoei aitortzen die erakunde erkideek arlo horretan duten legeria beren lurraldean betearazteko eskumena. |

| | |
|---|---|
| La ley 2/2022, de 10 de marzo, de Juventud, establece en el apartado i) del artículo 9.1 que es competencia de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la acción directa en las actividades y programas de carácter internacional y en los programas que conlleven el intercambio de plazas. | Martxoaren 10eko 2/2022 Legeak, Gazteriarenak, 9.1 artikuluaren i) atalean ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumena da zuzeneko ekintza nazioarteko jarduera eta programetan eta plazak trukatzea dakarten programetan. |
| Adicionalmente, el artículo 42 de la misma ley regula que el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de juventud, en colaboración con la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, fomentará la cooperación para el desarrollo en materia de juventud, así como la educación para el desarrollo, mediante programas de cooperación para el desarrollo. | Horrez gain, lege bereko 42. artikuluan xedatzen da Eusko Jaurlaritzan gazteriaren arloko eskumena duen sailak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarlanean, garapenerako lankidetza bultzatuko du gazteriaren arloan, baita garapenerako hezkuntza ere, garapenerako lankidetzako programen bidez. |
| **CUARTO. - Repercusión en el ordenamiento jurídico.** | **LAUGARRENA.- Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.** |
| La aprobación de este Decreto supondrá la derogación del Decreto 132/2023, de 12 de septiembre, de regulación del programa Juventud Vasca Cooperante. | Dekretu hau onartzeak Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa arautzen duen irailaren 12ko 132/2023 Dekretua indargabetzea ekarriko du. |
| **QUINTO. – Impacto en función del género.** | **BOSGARRENA.- Generoaren araberako eragina.** |
| En cuanto al impacto de género, el fomento de la participación de jóvenes es un instrumento clave para su empoderamiento por lo que cabe analizar en qué medida participan mujeres y hombres jóvenes en el ámbito que promueve la norma. | Genero-inpaktuari dagokionez, gazteen parte-hartzea sustatzea funtsezko tresna da haiek ahalduntzeko, eta, beraz, aztertu behar da zer neurritan parte hartzen duten emakume eta gizon gazteek arauak sustatzen duen eremuan. |
| El proyecto de Decreto, a través de la elaboración del informe de impacto en función del género realizado, analizará de qué manera el trabajo de voluntariado asociado al tiempo libre constituye un elemento que puede presentar desigualdades entre las y los jóvenes, desigualdades que comienzan a manifestarse en edades tempranas y que pueden perpetuarse en edades adultas. En este sentido, el sector de las ONGDs se encuentra altamente feminizado. En el programa de este año 2025, se han inscrito 147 jóvenes de los cuales 80,9% son mujeres y 19,1% son hombres. Asimismo, entre los 67 | Dekretu-proiektuak, egindako generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren bidez, aztertuko du aisialdiari lotutako boluntariotza lana nola izan daitekeen desberdintasunak gazteen artean, adin goiztiarrean agertzen diren desberdintasunak, eta helduaroan betikotu daitezkeenak. Ildo horretan, GKEen sektorea nabarmenki feminizatua dago. Aurtengo 2025eko programan. 2025. urteko programan 147 gaztek eman dute izena; horietatik % 80,9 emakumeak dira eta % 19,1 gizonak. Halaber, hautatutako 67 pertsonen artean, % 85,7 emakumeak dira eta %14,3 gizonak. Beraz, emakumeen parte-hartze |

| | |
|---|---|
| seleccionados, el 85,7% son mujeres y el 14,3% son hombres. Por tanto, esta alta participación de las mujeres permite concluir que no exista una representación equilibrada. | altu honen ondorioz, ezin daiteke ordezkaritza parekatua dagoenik ondorioztatu. |
| Tras estos datos figuran elementos que requerirán un análisis, de manera que se conozcan los factores que subyacen a esta cuestión. A partir del análisis realizado, se propondrán las medidas correctoras oportunas que favorezcan la igualdad entre sexos. | Datu horien atzean analisi bat beharko duten elementuak daude, gai horren atzean dauden faktoreak ezagutzeko. Egindako azterketatik abiatuta, sexuen arteko berdintasuna bultzatzeko neurri zuzentzaile egokiak proposatuko dira. |
| **SEXTO. - Impacto económico y presupuestario.** | **SEIGARRENA. - Ekonomia- eta aurrekontu-eragina.** |
| El artículo 13.1.d) de la Ley 6/2022 requiere que la Orden de inicio contenga una aproximación sobre la posible incidencia en los presupuestos de las administraciones públicas afectadas, en la materia concernida y, en su caso, en el sector de actividad de que se trate, así como sobre los beneficios y las cargas administrativas que pueda conllevar la propuesta para la ciudadanía, con especial referencia al impacto sobre las pequeñas y medianas empresas. | 6/2022 Legearen 13.1.d) artikuluaren arabera, hasteko Aginduak Arauak ukituko dituen administrazio publikoen aurrekontuetan izango duen eraginari buruzko hurbilketa bat egin beharko du, dena delako gai horretan nahiz, kasuan kasu, dagokion jarduera-sektorean izango duena, baita proposamenak herritarrentzat izan ditzakeen onurei eta zama administratiboei buruzkoa ere, eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainetan izan dezakeen eraginari buruzkoa |
| Dado que el proyecto de Decreto que se va a elaborar tiene por objeto la elaboración del Decreto que regulará el programa Juventud Vasca Cooperante, bastará con que se incorpore al expediente una memoria económica relativa al proyecto, en la que se analicen las repercusiones económicas de la propuesta, de conformidad con el artículo 42 del Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. | Dekretu-proiektuaren xedea Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa arautzea da, nahikoa izango da espedienteari proiektuari buruzko memoria ekonomiko bat eranstea, proposamenaren ondorio ekonomikoak aztertzeko, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren aren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluarekin bat etorriz. |
| **SÉPTIMO. - Trámites e informes procedentes.** | **ZAZPIGARRENA. - Egin beharreko izapideak eta txostenak.** |
| La tramitación del expediente se realizará a través de la aplicación informática de tramitación electrónica “Tramitagune”, de conformidad con el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 27 de noviembre de 2012, por el que se aprueban las instrucciones para la | Espedientea izapidatzeko "Tramitagune" aplikazio informatikoa erabiliko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen Gobernu |

| | |
|---|---|
| tramitación electrónica de determinados procedimientos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. | Kontseiluaren 2012ko azaroaren 27ko Erabakiarekin bat etorriz. |
| De acuerdo con lo dispuesto en el apartado e) del artículo 13.1 de la Ley 6/2022, la Orden de inicio debe señalar los trámites e informes que se estimen procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta. | 6/2022 Legearen 13.1 artikuluaren e) atalean xedatutakoaren arabera, hasteko Aginduan adierazi behar gaia eta proposatuko den arauketaren edukia direla-eta bidezko iritzitako izapide eta txostenen zerrenda, adierazita zergatik den eraginkorra, egokia eta beharrezkoa gaiaren berezitasunagatik edo lortu nahi diren xedeengatik nahitaezkoa ez den izapide bakoitza sartzea. |
| 1.- En cuanto a la redacción del proyecto de Decreto, ésta se efectuará atendiendo al contenido de esta Orden de inicio, teniendo en cuenta las opciones que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos y al resultado de las consultas que se estimen convenientes para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista. | 1.- Dekretu-proiektua idazteko, hasteko agindu honen edukia hartuko da kontuan, lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren kontsulten emaitzak kontuan hartuta. |
| Conforme al artículo 14.5 de la Ley 6/2022, el texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción. Asimismo, el texto debe ser redactado haciendo un uso no sexista e inclusivo del lenguaje. | 6/2022 Legearen 14.5 artikuluaren arabera, egindako testua bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, bertsio linguistikoen lanketan bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz araua idazteko prozesu osoan zehar. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen. Era berean, testua hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eginez idatzi beharko da. |
| 2.- Dado el carácter esencialmente adaptativo de la norma proyectada a la normativa vigente, no se estima necesario efectuar el trámite de consulta pública previa a su redacción, previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante LPAC), así como en el artículo 11 de la Ley 6/2022, que tiene por objeto recabar la opinión de los sujetos y sus organizaciones más representativas potencialmente afectadas por | 2.- Proiektaturiko araua funtsean legedi berrira egokitu behar denez, ez da beharrezkotzat jotzen aldez aurretiko kontsulta publikoaren izapidea egitea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan eta 6/2022 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki. |

| | |
|---|---|
| la futura norma. | |
| 3.- En virtud de lo expuesto en el apartado quinto de la presente Orden no se incluirá un informe de evaluación de impacto en función del género. | 3.- Agindu honen bosgarren atalean azaldutakoaren arabera, ez da sartuko generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko txostenik. |
| 4.- La Orden de inicio se publicará en el espacio colaborativo de conocimiento compartido Legesarea, de conformidad con lo dispuesto en el apartado primero (punto 1) del Acuerdo de Consejo de Gobierno, adoptado en su sesión celebrada en fecha 28 de diciembre de 2010, por el que se aprueban las instrucciones de tramitación en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general. | 4.- Hasteko agindua Legesarea ezagutza partekatuko lankidetza-gunean argitaratuko da, Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an egindako bileran hartutako Erabakiaren lehenengo atalean (1. puntua) xedatutakoaren arabera. Erabaki horren bidez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran izapideak egiteko jarraibideak onartu ziren. |
| Asimismo, de acuerdo con el artículo 13.2 de la Ley 6/2022, la presente Orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en Legegunea. Dicha publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de los departamentos, a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa. | Era berean, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta Legegunean argitaratuko da. Argitalpen horrek sail guztiei automatikoki jakinaraztea ekarriko du, hala badagokio, ekimenaren egokitasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ahal izan ditzaten. |
| 5.- Se elaborará, con carácter preceptivo, una memoria del análisis de impacto normativo, que deberá contener o reiterar respecto a la Orden de inicio cualquier extremo que pueda ser relevante a criterio del órgano proponente y, en todo caso, el contenido al que hace referencia el apartado 3 del artículo 15 de la Ley 6/2022. | 5.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo da nahitaez. Txosten horretan, proposamena egin duen organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi jaso edo errepikatu beharko da, bai eta 6/2022 Legearen 15. artikuluaren 3. paragrafoan aipatzen den edukia ere. |
| 6.- En el expediente deberá constar, la memoria económica referida en el apartado sexto de la presente Orden. | 6.- Agindu honen seigarren atalean aipatutako memoria ekonomikoa jaso beharko da espedientean. |
| 7.- Elaborados los citados documentos, se someterá el proyecto de Decreto a la aprobación previa, mediante Orden de la | 7.- Agiri horiek egin ondoren, dekretu-proiektua aldez aurretik onartu beharko da, Ongizate, |

| | |
|---|---|
| Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico. | Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburuaren agindu bidez |
| De conformidad con lo dispuesto en el apartado primero (punto 2) del Acuerdo de Consejo de Gobierno, adoptado en su sesión celebrada en fecha 28 de diciembre de 2010, por el que se aprueban las instrucciones de tramitación en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general, la iniciativa normativa promovida se dará a conocer mediante la inserción de la Orden de aprobación previa, junto con el proyecto normativo, en el espacio colaborativo de conocimiento compartido Legesarea. | Xedapen orokorrak egiteko prozeduran izapideak egiteko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko bilkuran hartutako Erabakiaren lehenengo atalean (2. puntua) xedatutakoaren arabera, sustatzen den araugintza-ekimena jakitera emateko, aldez aurreko onarpen agindua Legesarea ezagutza partekatuko lankidetza-gunean argitaratuko da. |
| Asimismo, de acuerdo con el artículo 16.3 de la Ley 6/2022, la Orden de aprobación previa, junto con el proyecto normativo, será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En el mismo sentido, y según lo estipulado en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, para dar cumplimiento al mandato de publicidad dispuesto en la misma y hacer público, en euskera y castellano, el texto del proyecto, se publicará en Legegunea. Asimismo, se publicarán las memorias e informes que conformen el expediente. | Era berean, 6/2022 Legearen 16.3 artikuluaren arabera, aldez aurreko onarpenaren agindua eta arau-proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko dira. Ildo beretik, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoaren arabera, lege horretan ezarritako publizitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko, Legegunean argitaratuko da. Halaber, espedientea osatzen duten memoriak eta txostenak argitaratuko dira. |
| 8.- Con arreglo al vigente procedimiento de elaboración de disposiciones normativas, se estima que pueden ser procedentes de conformidad con el artículo 16 de la Ley 6/2022, los siguientes informes introducidos por vía reglamentaria o que no tengan un carácter esencial, y las siguientes consultas a los propios departamentos de la Administración General, que se realizarán todos de un modo simultáneo y durante el mismo plazo común de un mes, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición: | 8.- Arau-xedapenak egiteko indarrean dagoen prozedurari jarraiki, 6/2022 Legearen 16. artikuluaren arabera beharrezkotzat jotzen dira erregelamendu bidez sartutako txosten hauek edo funtsezkoak ez direnak, bai eta Administrazio Orokorreko sailei beraiei egindako kontsulta hauek ere. Kontsulta horiek guztiak aldi berean eta hilabeteko epe komun berean egingo dira, xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita: |

| | |
|---|---|
| a) Informe de EMAKUNDE – Instituto Vasco de la Mujer, de verificación de ausencia de relevancia de género, en aplicación del artículo 20.6 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo. | a) EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, genero-garrantzirik eza egiaztatzekoa, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 20.6 artikulua aplikatuz. |
| b) Informe de la Dirección de normalización lingüística de las Administraciones Públicas, sobre la incidencia de las disposiciones de carácter general en la normalización del uso del euskera y su adecuación a la normativa vigente en materia lingüística, de acuerdo con lo establecido en el artículo14.2.l) del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, así como en virtud de lo determinado en el artículo 3 del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general. | b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan duten eraginari eta hizkuntzaren arloan indarrean dagoen araudira egokitzeari buruzkoa, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2.l) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera |
| 9- Atendiendo al contenido del proyecto de Decreto se consideran necesarios los trámites de audiencia e información pública, de conformidad con los artículos 17 de la Ley 6/2022. | 9.- Dekretu-proiektuaren edukia kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen dira entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea, 6/2022 Legearen 17. Artikuluan jasotakoaren arabera. |
| 10.- No resulta necesario realizar ningún trámite ante la Unión Europea. | 10.- Halaber, ez da beharrezkoa Europar Batasunean inolako izapiderik egitea. |
| 11.- Conforme al artículo 19 de la Ley 6/2022, deberán requerirse los siguientes informes preceptivos de carácter esencial: | 11.- 6/2022 Legearen 19. artikuluaren arabera, nahitaezko funtsezko txosten hauek eskatu beharko dira: |
| a) Informe de legalidad del Servicio Jurídico central del Gobierno Vasco, en virtud de lo establecido en el artículo 11.2 a) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del | a) Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren legezkotasun-txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.2 a) artikuluan ezarritakoaren arabera. |

| | |
|---|---|
| Servicio Jurídico del Gobierno Vasco. Con la solicitud de informe deberá remitirse una memoria resumen, con el contenido determinado por el artículo 11.3 del referido Decreto 144/2017. | Txosten-eskaerarekin batera, laburpen-memoria bat bidali beharko da, 144/2017 Dekretuaren 11.3 artikuluan zehaztutako edukiarekin. |
| b) Informe de control económico-normativo de la Oficina de Control Económico, de conformidad con lo establecido en el artículo 7.a) del Decreto 313/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las previsiones contenidas en el capítulo IV del Título III del texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre; y en el Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Deberá emitirse en el plazo de 15 días a contar desde la recepción, en la Oficina de Control Económico, del texto del proyecto de disposición normativa acompañado de la documentación requerida en función de su contenido. | b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta arau-kontrolari buruzko txostena, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan jasotako aurreikuspenei dagokienez. Arau-xedapenaren proiektuaren testua Kontrol Ekonomikoko Bulegoan jaso eta 15 eguneko epean igorri beharko da, proiektuaren edukiaren arabera eskatutako dokumentazioarekin batera. |
| 12.- No serán necesarios los siguientes informes preceptivos: | 12.- Nahitaezko txosten hauek ez dira beharrezkoak izango: |
| a) No resulta necesario el informe del Consejo de Relaciones laborales y del Consejo Económico Social Vasco que se especifica en el artículo 20 de la Ley 6/2022, ya que se establece que será preceptivo cuando así lo indiquen las disposiciones especificas que lo regulan. En este caso, el artículo 3 de la Ley 4/2012, de 23 de febrero, del Consejo de Relaciones Laborales, así como el artículo 3 de la Ley 8/2012, de 17 de mayo, del Consejo Económico y Social Vasco, establecen que dichos órganos emitirán informes preceptivos en los proyectos de decreto relacionados con | a) Ez da beharrezkoa Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, 6/2022 Legearen 20. artikuluan zehazten dena; izan ere, txosten hori nahitaezkoa izango da hori arautzen duten berariazko xedapenek hala adierazten dutenean. Kasu honetan, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3. artikuluak eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3. artikuluak ezartzen dute organo horiek nahitaezko txostenak egingo dituztela lan-arloko politikarekin eta politika |

| | |
|---|---|
| la política en materia laboral y la política económica y social, no siendo este el caso que nos ocupa. | ekonomiko eta sozialarekin lotutako dekretu-proiektuetan, baina ez da hori aztertzen ari garen kasua. |
| b) No resulta necesario el informe de la Comisión de Gobiernos Locales, ya que la norma no afecta a competencias propias de los municipios. | b) Ez da beharrezkoa Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, arauak ez baitie udalerriei dagozkien eskumenei eragiten. |
| c) No resulta necesario la elaboración de una memoria económica especifica, en función del artículo 15.5 de la Ley 6/2022. | c) Ez da beharrezkoa memoria ekonomiko espezifikorik egitea, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluaren arabera. |
| 13.- Una vez finalizada la tramitación del proyecto de norma, y con carácter previo a su aprobación por el Consejo de Gobierno, se elaborará una memoria sucinta de todo el procedimiento, reseñando los antecedentes y trámites realizados, conforme a lo establecido en el artículo 24.2 de la Ley 6/2022. | 13.- Arau-proiektuaren izapidetzea amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, aurrekariak eta egindako izapideak aipatuz, 6/2022 Legearen 24.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. |
| 14.- En cuanto a la publicidad y publicación del proyecto de Decreto, conforme al artículo 29 de la Ley 6/2022 y en virtud del artículo 64 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, las normas reglamentarias se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco. | 14.- Dekretu-proiektuaren publizitateari eta argitalpenari dagokionez, 6/2022 Legearen 29. artikuluaren arabera eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikuluaren arabera, erregelamenduzko arauak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. |
| **OCTAVO. - Sistema de redacción.** | **ZORTZIGARRENA. - Idazketa-sistema.** |
| Conforme al artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, así como al artículo 14.5 de la Ley 6/2022, el texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, garantizando la igualdad entre las dos lenguas en la elaboración de las versiones lingüísticas a lo largo de todo el proceso de redacción de la norma. El texto deberá estar redactado de forma bilingüe, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción. | Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluaren eta 6/2022 Legearen 14.5 artikuluaren arabera, egindako testua ele bitan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz. Testua bi hizkuntzatan idatzita egon beharko da, aldez aurretik onartu aurretik, eta, ondoren, instrukzio-fasean izapidetu aurretik. |
| El sistema de redacción que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el citado artículo 8.1 de la Ley 10/1982, será la traducción por los | 10/1982 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den idazketa-sistema arau- |

| | |
|---|---|
| servicios de traducción IZO de la versión en castellano del texto normativo. | testuaren gaztelaniazko bertsioa IZO itzulpen-zerbitzuek itzultzea izango da. |
| Asimismo, y en virtud del artículo 27.3 de la Ley 6/2022, a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión del texto articulado del proyecto en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, de los textos que hayan de ser finalmente aprobados y que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto a la versión en castellano, y viceversa, emitida por el Servicio Oficial de Traductores del IVAP. | Era berean, eta 6/2022 Legearen 27.3 artikuluaren arabera, proiektuaren euskarazko testu artikulatuaren bertsioaren zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, eta alderantziz, azkenean onartu behar diren eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar diren testuetan, argitaratzeko bidalitako dokumentuak IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak emandako euskarazko bertsioaren zehaztasunaren eta baliokidetasunaren ziurtagiria izan beharko du, gaztelaniazko bertsioarekiko, eta alderantziz. |
| **NOVENO. – La designación del órgano administrativo al que se encomienda la instrucción.** | **BEDERATZIGARRENA. – Instrukzioa egingo duen administrazio-organoa izendatzea.** |
| La Dirección de Juventud será el órgano encargado de la instrucción del procedimiento. | Gazteria Zuzendaritza izango da prozeduraren instrukzioaz arduratuko den organoa. |
| **DECIMO. – Plan anual normativo.** | **HAMARGARRENA. – Urteko araugintza-plana.** |
| En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones, se asegura que que el proyecto de Decreto del presente programa queda plenamente integrado en el Plan Estratégico de Subvenciones (PES) 2025-2028 del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico. | Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluan xedatutakoa betez, ziurtatzen da programa honen dekretu-proiektua erabat sartuta dagoela Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren 2025-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. |
| **UNDÉCIMO. - Publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica** | **HAMAIKAGARRENA.- Egoitza elektronikoko iragarki taulan argitaratzea.** |
| **1) Difusión en el espacio colaborativo Legesarea y utilización de Tramitagune.** | **1) Legesarea lankidetza-gunean zabaltzea eta Tramitagune erabiltzea.** |
| La presente Orden se hará pública en el espacio colaborativo Legesarea, y la tramitación del procedimiento se realizará a través de la aplicación informática de tramitación electrónica Tramitagune. Todo ello de conformidad con los Acuerdos del Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010, por el que se aprueban las | Dekretu hau Legesarea lankidetza-gunean argitaratuko da, eta prozedura izapidetze elektronikorako Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da. Hori guztia bat etorriz Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiarekin, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen |

| | |
|---|---|
| Instrucciones de tramitación de disposiciones de carácter general, y de 27 de noviembre de 2012, por la que se aprueban las instrucciones para la tramitación electrónica de determinados procedimientos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.<br><br>**2) Publicidad en Legegunea.**<br><br>Se dará publicidad en el espacio Legegunea del proyecto de norma que se elabore y de cuantos informes y documentación de relevancia jurídica se consideren de interés, para dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 7 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la Información pública y buen gobierno. | dituena, eta 2012ko azaroaren 27koarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozedura elektronikoki izapidetzeko jarraibideak onartzen dituena.<br><br>**2) Legegunean publizitatea egitea.**<br><br>Legegunean argitara emango dira egiten den arau-proiektua eta interesgarritzat jotzen diren garrantzi juridikoko txostenak eta dokumentazioa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan ezarritakoa betetzeko. |